



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko apirilaren 29a

54. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, titulu homologaturik ez duten osasun arloko profesional migratzaileak kontratatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, kalitate-figurak sustatzeko Landa Garapenerako Programen 2021eko deialdiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, langile publikoen prestakuntza eta gaikuntza teknologikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, “Terrorismo ezezaguna. Eskuin muturrak Nafarroan egindako atentatu terroristak (1975-1985)” izeneko txostenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Kideak programari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, sare sozialen bitarteko gorroto-diskurtsoak monitorizatu edo kontrolatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, emakumeak ahalduntzeko, emakumeak aisialdiko begirale gisa prestatzeko eta COVIDi buruzko sentsibilizazio-sare bat ezartzeko programei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, hizkuntzak ikasteko programei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak hautatutako analisi- eta azterlan-arloei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, sektore publikoak finantza-erakundeei komisiok ordaintzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, 2020ko martxoaren 13tik Nafarroako Gobernuak izapidetutako enplegu erregulazioko espedienteen txostenean jasotako datuen bilakaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, goizeko lehen orduko Iruña-Madril hegaldia “aldi baterako” kentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Oronozko eta Endarlatsako zentralak kultur intereseko ondasun deklaratzeko jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).

- Galdera, zentral hidroelektrikoak kultur intereseko ondasun deklaratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, “Tortura eta tratu txarrak Nafarroako Foru Komunitatean 1960-1978 bitartean” txostenetik Atarés koronelaren aipamena kentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, titulu homologaturik ez duten osasun arloko profesional migra- tzaileak kontratatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, titulu homologaturik ez duten osasun arloko profesional migratzaileak kontratatzeari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 26ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-21/PES-00084), Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

“1.- Zure ustez, zer azalpen dauka Eskubide Sozialetako Departamentuak ziurtatu izanak, 10-20/PES00291 espediente zenbakia duen galderaren erantzunean, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak helarazitako zerrendetan ez dela agertzen titulu homologatua duen inor?”

*2.- Zer zuzemen egin zituen Migrazio Politike-
tako eta Justiziako Departamentuak, behin infor-
mazioa jaso eta Osasun Departamentura eta
Eskubide Sozialetako Departamentura igorritako-
an, pertsona migratzaile horien kontratazioa
ahalbidetzeko?”*

*3.- Harreman pertsonalik izan al zen haiekin,
prestakuntza homologatua zuten pertsonekin
behintzat, prozesuan laguntza emateko?”*

Hona hemen erantzuna:

Parlamentari horrek berorrek egindako 10/20 PEI-00458 informazio eskaeraren erantzunean zehaztu zen bezala, martxoaren 15eko

SND/232/2020 Ministro Aginduak, COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko giza baliabideei eta bitartekoei buruzko neurriak hartu zituenak, hirugarren puntuan aukera hau ezarri zuen: “Autonomia-erkidegoetako osasun zerbitzuetara berehala batu ahalko dira praktikak edo prestakuntza egiteko zain dauden osasun arloko profesional guztiak, Ebaluazio Batzordeak hala erabakita edo proba teoriko-praktikoen zati teorikoa gainditu ondoren, apirilaren 16ko 459/2010 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera (dekretu horrek arautzen ditu Europar Batasunetik kanpoko herrialdeetan lortutako Osasun Zientzietako espezialista titulu onorio profesionalak onartzeko baldintzak)”.

Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak deia egin zuten ezarritako baldintzak bete zitzaizkeen migratzaileei, eta 200 bat curriculum jaso ziren, kontseilari honek iragan martxoaren 23ko prentsaurrekoan adierazi zuen moduan.

Eskaintzak iragazi eta bahetu ondoren, guztira 144 pertsona sartu ziren erizainen, erizaintzako laguntzaileen, medikuen eta abarrekoen behin betiko zerrendetan. Zerrenda horiek Osasuneko eta Gizarte Eskubideetako departamentuetara bidali ziren.

Zerrendak bidali eta gero, honako kudeaketa hauek egin zituen Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiak:

– Zuzenean harremanetan jartzea beharrezkoa zen identifikazio edo informazioaren bat falta zitzaizen pertsonekin, hura biltzeko.

– Harremanetan jartzea atzerritarren bulegoarekin, pertsona horietako zenbaiten egoera administratiboa ezagutzeko.

– Harremanetan jartzea Unibertsitate Ministerioarekin, unibertsitate tituluak homologatzeko prozesuak azkartu zitezela eskatzeko.

– Zenbait pertsona bideratzea atzerritarrentzat daukagun aholkularitza zerbitzura, tituluak homologatzeko izapideetan zituzten zailtasunak konpontzeko.

– Pertsona horien zuzeneko eskariei erantzutea eta zerbitzu egokietara bideratzea.

Kontseilari honek ez du ezer esatekorik beste departamentu batzuek parlamentari jaunaren galderari emandako erantzunak direla eta.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, kalitate-figurak sustatzeko Landa Garapenerako Programen 2021eko deialdiari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, kalitate-figurak sustatzeko Landa Garapenerako Programen 2021eko deialdiari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 26ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (21PES-00087). Hona hemen Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

Landa Garapenerako zuzendari nagusiaren 2021eko martxoaren 10eko 13E/2021 Ebazpenaren bidez, 2021-2022ko deialdia eta oinarri arautzaileak onetsi ziren 2014-2020 aldirako Nafarroako Landa Garapenerako Programaren "Informazio eta sustapen jarduerak barne-merkatuan" azpiburriari aurreikusitako laguntzak emateko.

Deialdia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko prozesuan dago, eta posta elektronikoz bidali zaie elikadura-kalitate berezituaren kontseilu arauemateari.

Aurrekontua 50.000 euro handitu da aurreko ekitaldiko deialdian izandakoaren aldean, 730.000 eurotik 780.000 eurora pasatuz.

Ez da aldaketa esanguratsurik egin oinarri arautzaileetan.

Iruñean, 2021eko martxoaren 12an

Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

Galdera, langile publikoen prestakuntza eta gaikuntza teknologikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, langile publikoen prestakuntza eta gaikuntza teknologikoari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 26ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak idatzizko galdera egin du (PES-00088); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

- *Aurreikusita al dauka Nafarroako Gobernuak langile publikoen heldutasun digitalaren maila ezagutzeko aukera ematen duen diagnostikorik egitea?*

- *Nafarroako Gobernuak diseinatu al du langile publikoentzako prestakuntza eta gaikuntza teknologikoko planik? Zer neurri aurreikusten ditu plan horrek edo aurreikusten dituzte plan horiek? Zein da plana gauzatzeko kronograma?*

Nahiz eta orain gaikuntza digitalaz hitz egiten dugun eta erreferentzia gisa Europako Batzordearen DIGCOMP esparrua hartzen dugun, NAPIk urte asko daramatza eremu honetako prestakuntza ekintzak antolatzen.

Gure prestakuntza eskaintza arlo hauetakoa da:

- «07 Informazioaren eta komunikazioen teknologia»
- «18 Modernizazioa eta Administrazio elektrotornikoa»
- «03 Teknika eta tresneria». (Ikus II. eranskina).

Gaur egun lanean ari gara NAPIk arlo horietan ematen duen prestakuntza DIGCOMP 2.1 esparruaren gidalerroetara egokitzeko, Europako Batzordeak esparru hori diseinatu baitu Europako herritarren gaitasun digitala garatzeko. Esparru

horrek xehetasunez deskribatzen ditu ingurune digitaletan aritzeko gai izateko beharrezkoak diren trebetasun guztiak, eta ezagueren, trebezien eta jarreraren ikuspegietatik deskribatzen ditu. Gainera, gaitasun bakoitzaren barnean zer maila dauden zehazten du.

Gaikuntza digitala osatzen duten arlo guztien mapa gisara erabil dezakegu DIGCOMP 2.1 esparrua. Ez dugu arau-esparru itxiztat hartu behar, gure premiak antolatzen lagunduko digun tresnatzat baizik, betiere kontuan izanik egunero lanean ezinbestekoak diren gaitasun digitalak.

Gure eskaintza DIGCOMP 2.1 esparruarekin erkatzen badugu (I. eranskina), hau ikusiko dugu:

- DIGCOMP 2.1eko arlo batzuk ederki ordezkaturata daude gure eskaintzan. Horietako bat da bulegotika, 3. Edukien sorrera arloan jasoa.

- DIGCOMP 2.1eko beste arlo garrantzitsu batzuek leku gehiago behar dute prestakuntza planetan; adibidez, 2.5. Nortasun digitala kudeatzea arloak.

- Gainera, DIGCOMPek beste arlo batzuk deskribatzen ditu hain egokiak gertatzen ez direnak guk darabilgun esparruan, hau da, langile publikoaren profil orokorrean.

Gaikuntza digitalerako prestakuntza plana

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoetako langileen gaitasun digitalak garatzeko prestakuntza plana diseinatu du NAPIk.

HELBURUA

Planaren helburua da bermatzea Administrazio langileek oinarrizko gaitasun maila lortuko dutela Europako Batzordearen DIGCOMP 2.1 esparruan deskribatutako gaitasun digitaletan.

FASEAK

Proiektuak honako fase hauek ditu:

- 1. FASEA: aipatu arloetan gaur egun ematen ari den prestakuntza aztertzea, DIGCOMP 2.1 esparruko gaitasun digitaletako arloen barnean mapa egitea, eta prestakuntza beharrak detektatzea.

- 2. FASEA: DIGCOMP esparrua Nafarroako administrazio publikoetako langileen beharretara egokitzea, eta bereziki garatzea Administrazioko

langileen jardunerako garrantzi handiena duten gaitasunak.

- 3. FASEA: helburuak lortzeko behar diren prestakuntza-materialak diseinatzea (DIGCOMP 2.1 gaikuntza digitaleko oinarrizko ikastaroa, aurrez aurre eta online).

- 4. FASEA: prestakuntza ematea.

NAPIn lanean ari dira gaikuntza digitaleko eskaintzaren berri zabaltzeko eta NAPIn webgunean eskaintza horri tarte bat egiteko.

Ekintza zehatzak:

- Microsite bat sortzea, bere goiburuarekin, URL argi batekin eta DIGCOMPi buruzko azalpenarekin.

- Gaikuntza digitalerako ikastaro-eskaintza bat aurkeztea, ikastaroak DIGCOMP 2.1eko arloen arabera antolatuta.

- Gaikuntza digitalerako ikastaroen eskaintza banakako prestakuntza-eskaintza orokorreko gainerako ikastaroetatik bereiztea.

- Prestakuntza urtean behin baino gehiagotan eskaintzea. Hiru hilean behin, eta ikastaro berriren bat gehitu hiru hileko bakoitzean.

- Gaikuntza digitalerako autoprestakuntzako oinarrizko ikastaro bat diseinatzea, onlinekoa, urte osoan zabalik egonen dena.

KRONOGRAMA

JARDUKETA	EXEKUZIO ALDIA
1. FASEA: egungo prestakuntza aztertzea eta DIGCOMPen mapatzea.	2021eko bigarren seihilekoa
2. FASEA: DIGCOMP esparrua funtzio publikoaren errealitatera egokitzea.	2021eko bigarren seihilekoa
3. FASEA: prestakuntza ekintzak diseinatu eta ezartzea (tutoretzapeko ikastaroak eta MOOC ikastaroak)	2022ko lehen seihilekoa
4. FASEA: prestakuntza ekintzak ematea	2022ko bigarren seihilekoa

I. ERANSKINA. DIGCOMP 2.1 GAITASUNAK

DIGCOMP 2.1

1.- Informazioa

Nabigatzea, informazioa bilatu eta iragaztea

Informazioa ebaluatzea

Informazioa biltegitratzea eta berreskuratzea

2.- Komunikazioa

Teknologien bidezko elkarreragina

Informazioa eta edukiak partekatzea

Herritarrentzako online prozesuetan parte hartzea

Kanal digitalen bidezko lankidetzak

“Netiketa”

Nortasun digitala kudeatzea

3.- Edukien sorrera

Edukiak garatzea

Integratzea eta birlantzea

Copyright-a eta lizentziak

Programazioa

4.- Segurtasuna

Gailuen babesa

Datu pertsonalen babesa

Osasunaren babesa

Ingurumenaren babesa

5.- Arazoak konpontzea

Arazo teknikoak konpontzea

Beharrak antzematea eta teknologian oinarritutako erantzunak ematea

Teknologiaren bidezko berrikuntza eta sormena

Gaitasun digitalen arloko arrakalak antzematea

II. ERANSKINA. GAIKUNTZA DIGITALERAKO PRESTAKUNTZA EKINTZAK. 2021EKO PRESTAKUNTZA PLANA

2021eko prestakuntza planean gaiakuntza digitalerako jasotako prestakuntza ekintzen zerrenda

ÁREA 03 – TÉCNICA E INSTRUMENTAL

Mecanografía (On Line)
Mecanografía (On Line)- Avanzado

ÁREA 07 – TECNOLOGÍAS DE LA INFORMACIÓN Y LAS COMUNICACIONES

Microsoft Excel 2016. Iniciación (On Line)
Microsoft Excel 2016. Avanzado (On Line)
Word 2010 Iniciación (On Line)
Word 2010 Avanzado (On Line)
Excel 2010 Iniciación (On Line)
Excel 2010 Avanzado (On Line)
Navegación y búsqueda eficaz en Internet (On Line)
PowerPoint 2016. Presentaciones profesionales de proyectos (On Line)
Organización del trabajo con Outlook 2010/2013 (On Line)
Word 2016 Básico (On Line)
Word 2016 Avanzado (On Line)
PowerPoint 2016 Básico (On Line)
PowerPoint 2016 Avanzado (On Line)
Productividad con Outlook 2016/2019: Correo avanzado y organización de agenda (On Line)
Actualización Office 2016
Excel Básico 2016
Herramientas avanzadas de Word 2016
Excel 2010-nivel medio
Publisher 2010
Herramientas avanzadas de Word 2016
Funciones de Excel 2016
Excel Avanzado 2016
Excel Básico 2016
Google Workspace, productividad en la nube
Tablas dinámicas en Excel 2016
Excel 2016-nivel medio
Internet y Redes sociales
Google Suite
Análisis de datos con Excel 2016
Reuniones online con Cisco Webex Meeting
Actualización Office 2016
Análisis de datos con Power Pivot, Power Query y PowerBI en Excel 2016

ÁREA 18 – MODERNIZACIÓN Y ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA

Redes sociales, Blogs y Wikis
Identidad electrónica para las Administraciones. Proyecto Cl@ve (Navarra)
Introducción a la Administración Electrónica
Teletrabajo, Administración Electrónica: Firma digital y fundamentos de seguridad digital en el trabajo

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 24an

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilaria: Javier Remírez Apesteguía

Galdera, “Terrorismo ezezaguna. Eskuin muturrak Nafarroan egindako atentatu terroristak (1975-1985)” izeneko txostenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Terrorismo ezezaguna. Eskuin muturrak Nafarroan egindako atentatu terroristak (1975-1985)” izeneko txostenari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 26ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatzizko galdera egin du (10-21/PES-00089) “Terrorismo ezezaguna. Eskuin muturrak Nafarroan egindako atentatu terroristak (1975-1985)” txostena dela eta. Hauxe da horri buruz Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak ematen dion informazioa:

1.- Txostena egiteko esleipena zuzena izan da? Zenbateko kostua izan du?

Ikerketa proiektuaren esleipena Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 81. artikulua babesean egin zen.

Hau izan zen esleipenaren kostua, guztira: 14.800 euro gehi BEZa.

2. Ikerketa hori egiteko, zergatik kontratatu du Madrilgo Unibertsitateko talde bat eta ez hemen go NUPeko historialariak, Nafarroako historiaz eskarmentu handiagoa dutenak eta gai hori eta antzekoak lehenago jorratu dituztenak?

Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiko Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zerbitzuko Biktimen Arretarako Bulegoak sustatu du ikerlan hori, beste ekintza batzuen artean.

Aurkeztutako dosieraren sarrerako paragrafoetan irakur daitekeenez, Espainiako demokrazia-rako trantsizioak iraun zuen garaian Nafarroako Foru Komunitatean eskuin muturreko taldeen biktima izandakoen egoerari buruzko txostena egiteko eskatu zen. Ikerketaren helburua hauxe da: Nafarroan eskuin muturreko taldeek egindako

ekintza terroristen biktimen eskubideak bete diren argitzea. Beraz, ez da ikerketa historikoa, juridikoa baino; hots, xedea da jakitea ea administrazio publikoek erreparazioa eman dieten Nafarroan eskuin muturreko taldeen biktima izandakoei, gertatutakoa ikerketa polizial eta judizialen bidez argitu den, eta biktimek legezko aitopenen jaso duten.

Horregatik, lana esleitzerakoan, legeriari, terrorismoaren biktimen eskubideei eta giza eskubideen urraketei buruzko eskarmentu eta jakintza handieneko profila bilatu zen, eta eskatutako espezializazio maila hori betetzen zuen Madrilgo Karlos III.a Unibertsitateko “Bartolomé de las Casas” Giza Eskubideen Institutuak, hango iker-tzaileen curriculumen bitartez egiaztatzen ahal denez.

3. Zergatik hartu da 1975-1985 denbora tartea eta ez zabalagoa?

Txostenak Espainiako trantsizioaren garaia hartzen du, eta horrez gain, geroko urte batzuk gehitu dira, gure Komunitatean indarkeriazko ekintza terroristak egin zirenekoak. Terrorismo ekintzez mintzatzen da. Nahiz eta, bistan denez, 1985az geroztik ere izan diren testuinguru politikoko indarkeriazko ekintzak.

Eta data horren ondoren baliteke eskuin muturreko motibazioko indarkeriazko ekintza terroristaren bat ere izatea. Halakorik bada, aztertu egingen da; txostena enkargatu eta garatu zenean ez zegoen bat bera ere jasorik eta egiaztaturik salaketa polizial edo judizialen bidez, Nafarroan eskuin muturreko taldeen azken ekintza terrorista ezaguna HARTZA jatetxearen aurka 1984ko abenduan egindako atentatua baita.

4. Txosten horrek zergatik ez du aipurik ere egiten hamarkada horretan Nafarroan gertatu ziren gainontzeko atentatuei buruz? Berariaz hartutako erabakia da, ala utzikeriaren ondorio?

Proiektua ez zen planteatu ekintza terrorista guzti-guztien zerrenda egiteko helburuarekin. Hori behin eta berriz ohartarazten da txosten osoan eta bereziki “Norainokoa” izenburuko kapituluari. Helburua zen biktimen egoera ezagutzea, lor dezaketen erreparazioari begira, eta horretarako lagin egiaztatua eta nahikoa iritzi zitzaion ikerlanean erabilitakoari, kontuan izanda, gainera, metodologia diseinatzean barnean hartu zirela biktimekiko elkarrizketa pertsonalak.

Nolanahi ere, txostenak bidea ematen du eta argi eta garbi eskatu, nahi duen edonork argibide eta xehetasun gehiago eskain ditzan eskuin muturreko taldeek Nafarroan egindako beste ekintza terrorista batzuei buruz, harremanetan jarriz Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiarekin.

5. Zein da Nafarroako Gobernuaren iritzia txostenaren kalitatearen inguruan?

Txostenak egoki betetzen du egindako enkargua.

6. Zein da Gobernuaren iritzia GAC-en inguruko kontakizunari eta kontraste faltari buruz publikoki egindako kexen inguruan?

Txostenak zituen akatsen inguruko kexei jaramon egin zaie eta akats horiek zuzenduta daude banatzekoa den bertsio berrian.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria: Ana Olló Hualde

Galdera, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 26ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-21/PES-00090), Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

“1.- Nola jarriko du abian Departamentuak arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planaren kronograman toki entitateei eta gizarte-entitateei aurtengorako aurreikusitako laguntza, eta zertan datza kronograma hori?”

2.- Zein da planaren behin betiko zenbatekoa? Next Generation dokumentuan ezarritakoa ala Lurralde Kohesioko Estrategian jasotakoa?

3.- Europako funtsik ez badauka, Departamentuaren asmoa proiektua birbideratzea da, ala funts berekiekin soilik ekinen dio hura garatzeari?”

Hona hemen erantzuna:

Aurtengorako toki eta gizarte entitateentzat arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokan arloan aurreikusten den laguntza kulturen arteko bizikidetzarako eta arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako borrokarako dirulaguntzen deialdiaren esparruan dago. Jada argitaratuta daude deialdi horren oinarriak. Parlamentari jauna oker ari da “arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planaren kronograma” aipatzen duenean, gaur egun plana prestatzen ari baita. Beraz, ezin da plan horren kronogramaz hitz egin; ezarritako dagoena da lehenbiziko aurrekontu-hurbilketa bat, hark “Next Generation dokumentua” deitzen dion horren barnean.

Bere galderan “Next Generation dokumentua” deitzen dion hori departamentu honek 10/20 PEI-00952 galderari erantzunez igorritako dokumentua da; une oro dokumentu horri eusten diogu, ekintza multzoaren aurrekontu zenbatetsiari dago-kionez.

Nolanahi ere, esan behar dugu dokumentu hori ez dela inondik ere proiektu bat, proiektuak prestatzeko hasierako proposamenen multzoa baizik. Espainiako Gobernua izanen da Europako erakundeetan aurreztuko dituen bikaintzat eta beharrezkotzat jotzen diren proiektuak; eta ustez premia garrantzitsuei eta funtsak emateko ezarri diren irizpideei erantzuten dietenak. Aurrez autonomia-erkidegoek aurreztuko dituzte proiektu horiek, kasuan kasuko ministerioak azter ditzan. Nafarroako Gobernuan hasierako proposamen

horiek prestatu ditugu gerora proiektu horiek egiteko, eta lehendik baditugun lan-ildoei erantzuten diete.

Lan-ildo horiek jada badaukate aurrekontua esleitura kasu gehienetan. Ez dira ametsetako proiektu erraldoien zirriborroak, zeruko mana etorriko den itxaropenaz eginak. Next programaren Europako funtsak jasoko balira azkarrago eta Nafarroako diru kutxa publikoetan inpaktu txikiagoa sortuta gauzatu ahalko lirakeen proiektuen proposamenak dira.

Arazakeriaren aurka borrokatzeko planaren behin betiko zenbatekoari dagokionez, gaur gaurkoz Nafarroako 2021erako Aurrekontuetara jo behar da: bertan 50.000 euro jarri dira plan hori prestatzeko eta abian jartzeko. Salaketa, Arreta eta Sentsibilizazio Bulegoak ere badu aurrekontua ekitaldi honetan; bulego hori giltzarri da planaren inplementaziorako eta ekintzarako. Eta hurrengo ekitaldietarako aurreikusten da partida gehiago izanen direla planari dagozkion ekintza batzuk Gobernutik garatzeko eta toki entitateek eta gizarte entitateek egin ditzaketan ekintzak babesteko.

Planak aurrera egingen du Europako funtsak jaso nahiz ez. Argi dago, ordea, ahalbide ekonomiko handiagoekin gehiago egin ahalko dugula. Eta Europako laguntzarik ezean, ez dugu ahalbide ekonomiko handiagorik izanen Nafarroako aurrekontuei heldu gabe.

Zer proposatzen dugu? Aurrekontu baliabideak biderkatzea. Bi milioi eta erdi eurora iristea arrazakeria eta xenofobia gure gizartetik desagerrarazteko ekintzetan. Alegia: Europako funtsekin, aurrerago joan nahi dugu. Babes handiagoa eman nahi diegu toki entitateei eta gizarte erakundeei. Planeko ekintzak koordinatzeko langileak nahi ditugu. Arazakeriaren edo xenofobiaren adierazpenak salatzeke eta biktimei laguntzeko bulegoa indartu nahi dugu. Sentsibilizazio kanpaina gehiago egin...

Horixe da gure hasierako lan-ildoak. Baina Next Generation proiektuen epe administratiboak ez dira oraindik hasi ez Europar Batasunean ez Espainiako Gobernuan. Beraz, ezin dugu inolako argibiderik eman harik eta epe horiek hasi, proiektuak modu ofizialean, epean eta behar den moduan aurkeztu, eta, azkenik, Europar Batasunak eta Espainiako Gobernuak ezarritako parametroen barnean adjudikatu diren ala ez jakiten dugun arte. Prozesu hori bete aurretik edozein informazio emateak Nafarroako interesei kaltea baino ezin die ekarri funts horiek eskuratzeko ahalleginean.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Kideak programari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Kideak programari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 26ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-21/PES-00091), Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

“Zertan datza eta nola garatuko da Kideak programako mentoretza-osagaia?”

Hona hemen erantzuna:

Mentoretza esku-hartze sozialerako tresna bat da, bazterkeria jasateko arriskua duen pertsona bati laguntza, orientazioa eta banakako akonpaimendua emateko beren burua borondatez eskaintzen duten pertsonen arteko harremana sustatzen duena.

Migratzaile gazteen gizarte sareari buruz egindako ikerketek erakutsi dutenez, migrazio proiektuaren ondoren gizarte sareak txikiak, homogeneoak eta trinkoak izan ohi dira. Sare zabalago eta heterogeneo batek erraztu egiten luke haien gizarteratze prozesua. Beraz, haien kapital soziala handitzeak, pertsona, talde eta entitate autoktonoekiko loturak sustatzen dituzten programak garatuz, murriztu egiten luke bazterkeria arriskua. Hala, gizarteratzeko tresna baliagarria da mentoretza, ohiko beste faktore batzuetatik harago –hala nola lan merkatua edo prestakuntza

arautua, kolektibo honi ia erabat ukatzen zaizkion esparruak–.

Mentoretza sozialeko ekimenek hainbat onura eskaintzen diete babes-sistematik irteten diren gazteei: kapital soziala eta indargarri emozionala handitzea, autonomia sentipen biziagoa, prestakuntzarako eta laneratzeko aukera hobeak eta motibazio handiagoa; horrez gain, biztanle autoktonoei buruzko ikuspegi positiboagoa garatzen dute, beste onura batzuen artean. Alderdi horiek guztiak emantzipazio prozesuei berme sendoagoekin aurre egiteko gakoak dira.

Bestalde, mentoretza sozialak mesede egiten die mentoreei (komunikaziorako eta kulturen arteko harremanetarako trebetasunak hobetzea, gazte migratzaileen errealitatearekiko sentisibilizazio handiagoa, estereotipoen murrizketa, etab.).

Harreman horietan “bestearenganako” sentikortasun handiagoa ere sortzen da; horrek haien autonomia prozesuetan aurrera egiten laguntzen du, eta onarpenean (ez tolerantzian) oinarritutako gizartea eraikitzeke ekarpena egiten du.

Garatzeko moduari dagokionez, enpresa adjudikazio-hartzailearen ardura izanen da esparru horretan egin beharreko jarduketak guztiak kudeatzea (boluntarioak bildu, hautatu eta trebatzea, bikoteen kudeaketa eta jarraipena). Mentore boluntarioek alde aurretik mentoretzari buruzko prestakuntza jaso eta gaituriko dute. Gainera, amaierako balorazioa egiten zaie bikoteak osatzeko unean. Entitate lizitatzailerak aurkezten duen proposamen teknikoak garatu beharreko ekintzak zehaztu beharko ditu.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, sare sozialen bitartezko gorroto-diskurtsoak monitorizatu edo kontrolatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, sare sozialen bitartezko gorroto-diskurtsoak monitorizatu edo kontrolatzeari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 26ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-21/PES-00092), Nafarroako Gobernuko Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

“1.- Legegintzaldiaren hasieratik zer ekintza egin ditu Departamentuak, sare sozialen bitartezko gorroto-diskurtsoak monitorizatu eta kontrolatzeko?”

2.- Ildo horretatik, inolako elkarlanik egin al da Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuarekin? Eta Herritarrekiko Harremanetakoarekin?”

3.- Zergatik desagertu da, Ayllu Zerbitzuaren eskumenen artetik, CitiBeats lanabes digitalaren erabileraren koordinazioa? Zer puntutan dago proiektu hori?”

Hona hemen erantzuna:

Departamentu hau elkarlan estuan ari da Herritarrekiko Harremanetako Departamentuarekin, hura baita Nafarroako Gobernuan Twitterko gorroto-diskurtsoak monitorizatzeko ardura duena CitiBeats tresnaren bidez.

Departamentu honen egiturari buruzko dekretu indardunean, CitiBeatsen gaineko eskumenak ez dira Ayllu zerbitzuan sartzeko, tresna hori modu orokorrean erabiltzen delako gorroto-diskurtsoak monitorizatzeko, eta ez arrazakeriaren esparruan bakarrik. Horregatik, eskumenak Herritarrekiko Harremanetako Departamentuari dagozkiola iritzi zaio, nahiz eta aipatu elkarlanari eutsi. Eskumena duen departamentuari galdetu behar zaio proiektuaren egoeraz.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, emakumeak ahalduntzeko, emakumeak aisialdiko begirale gisa prestatzeko eta COVIDi buruzko sentsibilizazio-sare bat ezartzeko programei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, emakumeak ahalduntzeko, emakumeak aisialdiko begirale gisa prestatzeko eta COVIDi buruzko sentsibilizazio-sare bat ezartzeko programei buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 26ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hau egin du (10-21/PES-00093), Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

“Zer aurrekontu eta kronograma darabil departamentuak, beste departamentu batzuekiko lankidetzan abiarazi nahi dituen hiru programak, aurtengorako iragarriak, aurrera eramateko? Hots, emakumeak ahalduntzeko, emakumeei aisialdi-begirale izateko prestakuntza ematekoa, eta

COVIDari buruzko sentsibilizazio-sare bat ezartzekoa?”

Hona hemen erantzuna:

Emakumeak ahalduntzeko programa NABlrekin lankidetzan egingen da. Ez du aurrekontu-ekarpenik jasoko Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentutik. Lan egutegian ageri denez, martxotik azarora bitartean saioak hilero egingen dira, uztailan eta abuztuan izan ezik.

Emakumeei aisialdi-begirale izateko prestakuntza emateko programari dagokionez, prestakuntzaren behin betiko egutegia egiten ari da. Ikastaroak 270 ordu izanen ditu: 120 ordu teoriko-praktiko, 120 ordu praktiko, eta programaziko/memoriako 30 ordu. Migrazio Politiketako Departamentuak programaren aurrekontuko 4.000 euro jarriko ditu.

Covid-19ari buruzko sentsibilizazio-sare bat ezartzea Kultura Bitartekaritzako Zerbitzuaren ekintzetakoa da. Kronogramak otsaila, martxoa, apirila eta maiatza hartzen ditu.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, hizkuntzak ikasteko programei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, hizkuntzak ikasteko programei buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 26ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hauek egin ditu (10-21/PES-00094), Nafarroako Gobernuako Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun ditzan:

“1.- Zer epealdi aurreikusten ditu departamentuak, aurtengorako iragarri dituen hizkuntz ikasketarako programak aurrera eramateko?”

2.- Lizarrarako iragarritakoaz gain, beste biak non izanen diren erabakita al dago jadanik?”

3.- Zer irizpideren arabera erabaki dira gaztelaniazko eta euskarazko programen propor-

tzioak? Kasuko herrietatik eginiko eskaera baten arabera jokatu al da? Baiezkoan, kasuko eskabidea atxiki bedi.

4.- Zertan datza programa, eta nola hautatuko dira horretaz arduratuko diren pertsona edo entitateak?”

Hona hemen erantzuna:

Jakina, Departamentuak aurreikusten du 2021ean eramanen direla aurrera 2021erako iragarritako hizkuntza programak. Oraindik ez da zehaztu non izanen diren beste programak, Lizarrakoaz gainerakoak.

Gaztelaniazko eta euskarazko programen proportzioa oraindik ez dago finkatuta; hasierako proposamena baino ez dago, eta zehaztu eginen da eskariaren eta xede-populazioaren arabera.

Bistan denez, programa definizio fasean dago eta ausartegia litzateke eskatu diren datu zehatz horiek ematea.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak hautatutako analisi- eta azterlan-arloei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Jorge Esparza Garrido jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Migrazio Politiketako eta Justiziako Departamentuak hautatutako analisi- eta azterlan-arloei buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 26ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Jorge Esparza Garrido jaunak galdera hau egin du (10-21/PES-00095), Nafarroako Gobernuo Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariari idatziz erantzun dezan:

“1.- Zer irizpidetan oinarriturik ezartzen dira Departamentuak aurtengorako hautatu dituen analisi- eta aztertze-arloak? Jadanik ezarrita dagoen programazio baten parte al dira? Baiezkotan, gainerakoaren berri eman.

2.- Zer irizpideren arabera erabakitzen dira txosten edo azterlan horien prestakuntza esleitzen zaien pertsonak edo entitateak?

3.- Departamentuak xede horretarako partida agortu nahi al du 2021erako iragarritako bi azterlan horiek egitearekin? Zer kostu izanen du horietako bakoitzak?”

Erantzuna:

Departamentuaren urteko plangintzan, Migrazio Politiketako Zuzendaritza Nagusiko lantalde tekniko osoarekin batera, balizko aztergaiak baloratzen dira, erabilgarri dagoen aurrekontuko partida zeini eman erabakitzeko.

Askotariko irizpideak erabiltzen dira: azkenaldiko intereseko gaiak; kolektiboek buruzko datuak osatzeko beharra; populazio migratzailean oraindik aztertu gabe dauden alderdiak ezagutu beharra; edo arlo horretako gure politikak eta ekintzak ebaluatu beharra. Irizpide horietan oinarriturik, eta zenbait kasutan beste departamentu edo erakunde batzuekin koordinaturik, urtero erabakitzen da zein gai eta arlo jorratuko diren. Hurrengo aldagaia ekonomikoa da, aurrekontuko partida erabilgarria hartzen baita kontuan.

Aurten, 2021ean, ahalik gehien baliatu nahi da partida hori. Bi lan-ildo ezarri dira, eta horien kostuari dagokionez esan behar da oraindik aurrekontu gabe dagoela Erriberako emakume migratzaileei buruzko azterlana, eta 8.263,71 euroko kostua izanen duela “Koloretako nafar funtsezkoenganako emozio transzendentak eta kultura arteko jarrerak Covid-19 pandemian” izeneko azterlanak. Txostenak edo azterlanak egiten dituzten pertsonak eta entitateak profesionaltasunaren eta arloko esperientziaren araberrako irizpide teknikoetan oinarriturik hautatzen dira.

Hori jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 18an

Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilaria: Eduardo Santos Itoiz

Galdera, sektore publikoak finantza-erakundeei komisioak ordaintzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, sektore publikoak finantza-erakundeei komisioak ordaintzeari buruzkoa. Galdera 2021eko urtarrilaren 29ko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako 10-21-PES-00042 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Caixabank finantza-erakundeak bidalitako informazio osagarria eranstean da. Bertan biltzen dira "txartelaz egindako eragiketengatiko beherapen-tasak" kontzeptu pean kobratutako komisioak:

Iruñean, 2021eko apirilaren 8an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Urtea	Kontuaren IBAN kodea	Zenbatekoa
2016	ES2321003693252200464637	4,24
	ES3921009161402200022695	91,77
	ES7721003693212200204192	11,24
	Guztira, 2016	107.25
2017	ES2321003693252200464637	110,87
	ES2321003693292200172665	480,66
	ES3021003693272200082427	171,88
	ES3921009161402200022695	5.378,30
	ES5121003693242200341671	884,22
	ES7121003693222200331903	67,16
	ES7221003693252200159854	331,51
	ES7721003693212200204192	676,47
Guztira, 2017	8.101.07	
2018	ES2321003693252200464637	402,61
	ES2321003693292200172665	469,67
	ES3021003693272200082427	715,83
	ES3421003693262200284261	7,35
	ES3921009161402200022695	4.635,60
	ES5121003693242200341671	884,47
	ES7121003693222200331903	94,56
	ES7221003693252200159854	460,18
	ES7721003693212200204192	1.250,86
Guztira, 2018	8.921.13	

Urtea	Kontuaren IBAN kodea	Zenbatekoa
2019	ES2321003693252200464637	127,37
	ES2321003693292200172665	441,73
	ES3021003693272200082427	708,77
	ES3421003693262200284261	4,93
	ES3921009161402200022695	4.482,46
	ES5121003693242200341671	691,88
	ES6021003693292200463387	159,34
	ES7121003693222200331903	93,56
	ES7221003693252200159854	874,13
	ES7721003693212200204192	1.092,49
	Guztira, 2019	
2020	ES2321003693252200464637	122,00
	ES2321003693292200172665	647,83
	ES3021003693272200082427	691,84
	ES3421003693262200284261	2,45
	ES3921009161402200022695	3.584,10
	ES5121003693242200341671	483,11
	ES5221003693252200202409	10,25
	ES6021003693292200463387	216,59
	ES7221003693252200159854	694,70
	ES7721003693212200204192	820,61
	Guztira, 2020	
Guztira, 2016-2020		33.079.59

Galdera, 2020ko martxoaren 13tik Nafarroako Gobernuak izapidetutako enplegu erregulazioko espedienteen txostenean jasotako datuen bilakaerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2020ko martxoaren 13tik Nafarroako Gobernuak izapidetutako enplegu erregulazioko espedienteen txostenean jasotako datuen bilakaerari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 12ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak honako informazio hau ematen du EH BILDU talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak aurkezturiko 10-21/PES-00068 idatzizko galderari buruz, zeinean jakin nahi baitu zer-nolako bilakaera izan duten gaur egun ABEEE-aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen datuen enpresen datuek, konparatuta 2020ko maiatzaren 6ko agerraldi parlamenta-

rioan Garapen Ekonomikoko kontseilari Manu Ayerdi jaunak aurkeztu zuen txosteneko datuekin:

2020ko maiatzaren 6ko agerraldian, ABEEE egoeran zeuden langileei buruzko datuak biltzen zituen txosten bat eskaini zen. Datu horiek oinarrituta zeuden Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendaritza nagusiak Lan Zerbitzuko erregistroan erregistraturik zeuden erregulazio-espeditenteei buruz zeuzkan datuetan. Une hartan –maiatzaren hasiera–, ABEEE batek ukituriko 61.165 langile zeuden.

Komeni da argitzea kopuru hori dela plantillako pertsonen guztizkoa, ABEEE egoerako enpresek espeditentea erregistratzeko eginiko eskabidean sartzen zutena. Eta hortik ezin ondorioztatu da horiek guztiak ABEEE egoeran zeudenik, baizik eta enpresak baimena eskatzen zuela egoera horretan egon ahal izan zitezen.

Gogorarazi beharrekoa da pandemiaren agerpena, eta horrek jarduera ekonomiko eta komertzialean, mugikortasunean eta pertsonen bizitzako esparru guztietan izandako eragina. Zalantzarik gabe, pandemiaren hedapenaren azkarrak eta gertatu ziren ezohiko zirkunstantziek aurrekaririk gabeko osasun-krisi erraldoi bat sortu zuten, bai erasandako herritarren kopuru izugarriagatik, bai eta haien eskubideak koloka larrian jartzeagatik ere.

Zehazki, eskola-jarduna bertan behera geratu ondoren, martxoaren 14an alarma-egoera deklaratu zen, zeinak Espainiako lurralde osoari eragiten baitio, pertsonen mugikortasuna eta ohiko jarduna mugatuz, COVID-19aren ondoriozko krisi sanitarioko egoera kudeatzeko. 463/2020 Errege Dekretua, martxoaren 14koa, zeinaren bitartez alarma-egoera deklaratzeko baita COVID-19aren ondoriozko krisi sanitarioko egoera kudeatzeko.

Martxoaren 17an, Ministroen Kontseiluak 8/2020 Errege Lege-dekretua onetsi zuen, martxoaren 17koa, COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako neurri bereziei buruzkoa. II. kapituluak jarduna aldi baterako doitzeko bideak malgutzeko neurriak ezartzen ditu, langile-kaleratzeak ekiditearren.

Martxoaren 28an jarduera ekonomiko ez-funtsezko orenen gerarazpena iragarri zen, pandemia galgatzeko saiatzeko. Martxoaren 28an, Sánchez lehendakariak jarudera ez-funtsezkoak bertan behera utziko zirela iragarri zuen.

Testuinguru horretan, zeinean hitzetik hortzera araudi bidez ezarri baitzen murriztu egingen zirela mugikortasuna, jarduera ekonomiko eta komertziala, lanaren eta harremanen presentzialtasuna

eta abar, pandemiari aurre egiteko, sektore ezberdinetako enpresak beharturik gertatzen dira, faktore ezberdinen ondorioz, ABEEE-aldi baterako enplegu-erregulazioko espeditenteak aurkeztera.

Maiatzetik aurrera ikusi ahal izan zen ezen, nahiz eta pixkanaka-pixkanaka pertsonak lanera bueltatzen joan, ABEEEek irekita zirautela haiek barne harturiko pertsona guztietan, Laneko eta Ekonomia Sozialeko Ministerioako Lan Zuzendaritza Nagusiaren gomendioei jarraikiz, lan-etendurari zegokionez pertsonen “aktibazio eta desaktibazioa” erraztearren, COVID-19aren pandemiaren eta une bakoitzean horri aurre egiteko beharrezko neurri murriztaileen bilakaeraren arabera.

Pandemiaren bilakaeraren nolakotasunari buruzko ziurgabetasuna zela-eta, asmoa zen beste Estatuko nahiz autonomia erkidegoetako lan-zuzendaritza nagusietan ABEEE samalda bat izapidetu beharra saihestea erasandako pertsonen kopurua aldatzen zen bakoitzean. Beraz, eutsi egiten zitzaion ABEEE egoera potentzialean zeuden pertsonen kopuruari; baina agerian gertatzen hasi zen, prestazio-kobrantzaren adierazlearen bidez, hots, SEPEren bidez, egiaz lan-etete egoeran zeuden pertsonen kopurua pixkanaka aldentzen zihoala espeditente-erregistroan adierazitako langile-kopurutik.

Horrela, ekainetik aurrera, ABEEE kopurua egonkor eta zertxobait goranzkoa zelarik, ABEEE batek egiazki erasandako pertsonen kopurua nabarmen jaitsi zen, halako moduz non datu erreala urrundu egin baitzen enpresek hasiera batean izapideturiko ABEEEari atxikitako zerrenden bidez balioetsitako datutik.

Zehazki, 2020ko maiatzean, 6.583 espeditente erregistratu zeuden, eta potentzialki erasandako 61.165 langile. Gero (SEPEko datuak lortzeko itxaron beharra egon zen), egiaztatu ahal izan zen ezen hilabete horretan ABEEEan egiazki zeuden langileen kopurua 30.832 izan zela (datu hori heldu da prestazio-hartzeetatik).

ABEEE erregistratuen kopuruari dagokion azken datua, 2021eko otsailekoa, 7.687koa da. Egiazki erasandako langileen datuari dagokionez (berez hori da interesatzen dena), SEPEren azken datua dago eskuragarri, 2021eko urtarrilekoa, eta 7.137 langilekoa da. Departamentuak jada ez du estatistika gisa ustiatzen ABEEE espeditenteetako langile potentzialen datua, gaur den egunean eskaintzen duen irudia ez datorrelako bat errealitatearekin.

Egiazki ABEEE egoeran dauden pertsonen estatistikak ustiatzeko, SEPEren datuak zaizkigu beharrezko, eta horietarako irispidea Errealitate Sozialaren Behatokiak dauka.

	Espedienteak	Langileak	ABEEE prestaziodun langileak
20-mai	6.583	61.165	30.832
21-ots	7.687	()	7.137

1. taula

Ordutik aurrerako ABEEE-bilakaerari buruzko informazioari gagozkiola oraindik ere, ikusten da gehitu egin direla erregistraturiko ABEEEak. Kontuan hartu behar da araudiak baimendu egin duela enpresa bakoitzak ABEEE mota berriak tramitatzeari. Mota horiek arautu dira neurri sanitarioen bilakaeraren arabera. Horregatik, posible da enpresa batek berak aktibo edukitzea hasierako ABEEEa, martxokoa, ezinbesteko arrazoen ondo-

riozkoa, bai eta geroko beste bat, eragozpenekoa, bai eta mugapenekoa bat, adibidez.

Bestalde, nabarmena da kausa ekonomiko, tekniko, antolakuntzako edo ekoizpenekoa duten espedienteen igoera mantsoa. Dena den, zuzenean pandemiatik eratorritakoa den kausak nagusi izaten segitzen du, halako moduz non ezinbesteko arrazoiagatik ABEEE portzentajeak ia % 88 egiten baitu.

	Ezinbesteko arrazoiagatik	Kausa ekonomiko, tekniko, antolakuntzako edo ekoizpenekoa	Guztira
ABEEE kopurua 2020ko maiatzean	6.069	514	6.583
Ezinbesteko arrazoiagatik ABEEE % 2020ko maiatzean	% 92	% 8	% 100
ABEEE kopurua 2021eko otsailean	6.760	927	7.687
Ezinbesteko arrazoiagatik ABEEE % 2021eko otsailean	% 87,90	% 12,10	% 100

2. taula

Estatistikoki apur bat desitxuratzen hasten da ABEEEen arrazoiak; izan ere, zenbait enpresak haietako batzuk aktibo dituztenez, zaila da identifikatzea zein ari den aplikatzen hilabete bakoitzean. Gehiago dira espedienteak ukitutako enpresak baino. Beraz, aztertu beharko litzatekeen datu berria da zenbat enpresak duten aktibo ABEEEren bat.

2020ko maiatzean ABEEEa aktiboa duten enpresa kopurua	6.583, geroago bahetua: 5.969
2021eko otsailean ABEEEa aktiboa duten enpresa kopurua	5.498

3. taula

Nafarroako eremuen arabera, ukipenaren bila-
kaera honako hau da:

Eremua	Espediente aktiboen kopurua: 2020ko maiatza	Eremu bakoitzeko % 2020ko maiatza	Espediente aktiboen 2021eko otsailean	Eremu bakoitzeko % 2021eko otsailean
NAFARROAKO ERDIALDEKO EKIALDEA	267	% 4,06	332	% 4,3
IPAR-MENDEBALDEA	555	8,43%	759	% 9,8
IRUÑEKO ESKUALDEA	3.713	% 56,4	4.704	% 61,0
PIRINIOETAKO ESKUALDEA	90	% 1,37	110	% 1,4
ERRIBERAGOIENA	357	% 5,42	477	% 6,2
LIZARRALDEA	358	% 5,44	413	% 5,4
TUTERAKO ESKUALDEA	704	% 10,69	905	% 11,7
Zuri	539	% 8,19	12	% 0,2
Guztizko orokorra	6.583	% 100	7.712	% 100

4. taula

ABEEEen inaktuaren bilakaera, enpresen
arabera, honakoa izanen litzateke:

	Espedienteak 2020ko maiatza	% sektore bakoitzeko 2020ko maiatza	Espedienteak 2020ko otsaila	% sektore bakoitzeko 2021eko otsaila
Lehen sektorea.	16	% 0,2	17	% 0,2
Industria	697	% 10,6	804	% 10,4
Eraikuntza	355	% 5,4	281	% 3,6
Zerbitzuak	5.509	% 83,7	6.589	% 85,4
Zehaztugabea	7	% 0,1	21	% 0,3
Guztira	6.583	% 100	7.712	% 100,0

5. taula

ABEEEn bilakaera, xehakaturako sektoreen arabera, honakoa izanen litzateke:

Jarduera	Espedienteen kopurua 2020ko maiatzean	Espedienteen kopurua 2021eko otsailean	% jardueraren arabera, 2020ko maiatzean	% jardueraren arabera, 2021eko otsailean
Motordun ibilgailuak, atoiak eta erdi-atoiak fabrikatzea	50	78	% 0,76	% 1,01
Jaki eta edarien zerbitzuak	1.470	2.940	% 22,33	% 38,12
Txikizkako merkataritza, salbu eta motordun ibilgailuak eta motozikletak	978	932	% 14,86	% 12,09
Motordun ibilgailuak eta motozikletak saltzea eta konpontzea	402	285	% 6,1	% 3,70
Metalezko produktuak fabrikatzea salbu eta makineria eta ekipamendua	101	176	% 1,53	% 2,28
Kirol, aisia eta entretenimenduko jarduerak	188	201	% 2,86	% 2,61
Eraikuntza espezializatuarekin lotutako jarduerak.	256	199	% 3,89	% 2,58
Makineria eta ekipamendua fabrikatzea, b.l.s.g.-ak	32	44	% 0,49	% 0,57
Lurreko garraioa eta hodi bidezkoa	131	120	% 1,99	% 1,56
Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak, salbu eta motordun ibilgailuak eta motozikletak	240	304	% 3,65	% 3,94
Metalurgia; burdin, altzairu eta ferroaleaziozko produktuak fabrikatzea	18	18	% 0,27	% 0,23
Hezkuntza	242	193	% 3,68	% 2,50
Gizarte zerbitzuetako ostaturik gabeko jarduerak	51	57	% 0,77	% 0,74
Ostatu arloko zerbitzuak	175	220	% 2,66	% 2,85
Biltegiatzea eta garraioaren jarduera gehigarriak	41	31	% 0,62	% 0,40
Osasun arloko jarduerak	319	225	% 4,85	% 2,92
Gainerakoa	1.890	1.689	% 28,71	% 21,90
Guztizko orokorra	6.583	7.712	% 100	% 100

6. taula

ABEEEtako prestazioen onuradunak, errenta tarteen arabera, ezagutzea ahalbidetuko ligukeen estatistika bati dagokionez, ez dugu horrelakorik. Horretarako bi fitxategi izendun beharko genituzke, pertsonak banan-banan identifikatuta eta honako informazio hau jasoko luketenak:

1. onuradunen identifikazioa, fitxategi hori gurutzatzeko behar diren eremuekin.

2. eskura dagoen azken urte fiskaleko identifikazioa eta errenta biltzen dituen fitxategi bat.

Lehen fitxategia SEPetik iritsi beharko litzateke, prestazio horiek ematen dituzten erakundeak baita. Une honetan ez dago informazio hori eskuratzerik. Bigarren fitxategia Nafarroako Foru

Ogasunetik iritsiko litzateke, berak dituelako PFE-Zaren aitortpenak eta aplikatzen duelako Nafarroako Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean araututakoa, zerga-ondorioak dituzten datuen izaera erreserbatua dela-eta. Eskatutako informazioa ez dago sartuta gaur egun aipatu legearen 105. artikuluan agertzen diren salbuespenetako baka batean ere.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 31n

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

Galdera, goizeko lehen orduko Iruña-Madril hegaldia “aldi baterako” kentzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier García Jiménez jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, goizeko lehen orduko Iruña-Madril hegaldia “aldi baterako” kentzeari buruzkoa. Galdera 2021eko otsailaren 26ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko apirilaren 6an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak honako informazio hau ematen du Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko 10-21/PES-00086 idatzizko galderari buruz, zeinean hainbat alderdi jakin nahi baitu “goizeko lehen orduko Iruña-Madril hegaldia ‘aldi baterako’ aldi kentzea” dela-eta:

Zer egin du Nafarroako Gobernuak goizeko lehen orduko Iruña-Madril hegaldia “aldi baterako” ken dadin saihesteko?

Nafarroako Gobernuak, Sodenaren bidez, harremanetan egon da 2020ko martxoaren hasie-

ratik, Iruña-Noaingo aireportuko zuzendaritzarekin eta bertan operatzen duten airelinea nagusiekin.

2020ko martxoan aireportuko hegaldi guztiak bertan behera utzi ziren, alarma-egoeragatik. Iruña-Madril aireko lotura 2020ko ekainaren bukaeran berreskuratu zen, operatibo murriztutarakin. Zehazki, eguneroko joan eta etorriko bi hegaldi berrabiarazi ziren; Iruñetik Madrilerako irteerak 8:55ean eta 17:10ean ziren. Eta aldaketa funtsezko bat egon zen, Iruña-Madril hegaldien programazioak Ari Nostrumen ardura izateari utzi eta Iberiak zuzenean egina izatera iragan baitzen.

2021eko urtarrilaren amaieran egunkarietan argitara eman zen otsailetik aurrera “Air Nostrumek kenduko dituela Iruñaren eta Madrilen arteko goizeko hegaldietatik gehienak”. Egia esan, Iberiak dio ez duela kendu goizeko lehen hegaldia, baizik eta eguerdira arte atzeratu. Beraz, 8:55eko Iruña-Madril hegaldia 12:55era arte atzeratu da, eta bigarren hegaldia 17:10ean mantentzen da.

Iberiak jadanik “formula” hori programatu zuen 2020ko azarorako, eta hilabete honetako lehen hamabostaldian hegaldiak 12:55ekoak eta 17:10ekoak izan ziren. Sodena aldaketa horien jakitun izan zen irailean bertan, eta horregatik bilera birtual bat antolatu zuen urrian Iberiarekin biltzeko. Aipatu bileran, Sodenak helarazi zuen interesa zuela lehen hegaldia 8:55era aurrera-

tzeko, beharrezkoa baitzen egunean Madrilerako joan eta etorriko bidaiak ahalbidetzeko.

Harreman horien ondotik, Iberiak bere planak berrikusi eta erabaki zuen hasierako planifikazioa berreskuratzea, alegia, Madrilerako bi hegaldi, 8:55ean eta 17:10ean, indarrean egon zirenak azaroaren erditik 2021eko urtarrilaren amaiera arte.

Martxoaren 22an berriro izan dira harremanak, egiaztatu denean hegaldien ordutegi berberak mantentzen direla datozen hilabeteetarako, Madrilerako irteerak eguerdian eta arratsaldean eginez. Harreman horietan Iberiak egiaztatu du operatiboa astero berrikusten dutela eta programazioa eskari- eta COVID-19aren pandemiak eragindako inguruabarretara doitzen dela. Konpainia prest dago hura egokitzera, egiaztatzen badu behar adina eskaria dagoela egunean Madrilerako joa eta etorriko bidaiak egiteko.

Ba al daki departamentuak zergatik kendu den? Horiek ezagutzuz gero, zein izan da enpresak hegaldi hori kentzeko izan duen arrazoia?

Konpainiaren arabera hegaldia ez da kendu, atzeratu baizik. Hegaldien operatiboak murrizteko Iberiak darabiltzan zioak dira osasun egoerak eta mugikortasunari aplikatutako murrizketek ekarri duten ingurunearen aldaketa guztiz larria.

Iberiak dioenez, goizeko lehen hegaldia eguerdira atzeratzearen azalpena da airelineak lehentasuna ematen diola Madrilera Ameriketarako loturarekin hegaz egiten duten bidaiarien konektibitatea bermatzeari. Egungo egoera ikusita, Iberiak murriztu egin du kontinente arteko hegaldien kopurua eta, gainera, 16:00etara atzeratu ditu, 12:00etara egin ordez, COVID-19aren aurreko egoeran operatzen zuten modura.

Egin al da ukitutako erabiltzaile-kopuruari buruzko zenbatespenik?

Zaila da zenbatestea zenbat erabiltzaile ukitu dituen goizeko lehen hegaldiaren ordutegiak aldatzeak pandemiaren egungo inguruabarretan. Egon, badago informazioa Madrilerako hilabeteko bidaiarien kopuruari dagokionez. Halere, bidaiari-

en kopuruaren bilakaera ezin da azaldu bakarrik hegaldien ordutegien aldaketaren bidez. Kontuan hartu behar da ere osasun egoeratik hartutako neurrien aurrean bidaiariak izandako erreakzioa. Esate baterako, urrian ixte perimetralaren iragarpenak oso eragin negatiboa izan zuen azaroko bidaiarien kopuruan, baina abenduan ez zuen eraginik izan Eguberriko oporrekin lotutako bidaietan.

	Bidaiariak guztira Iruña-Madril eta Madril-Iruña
21-ots	4.185
21-urt	4.418
20-abe	5.072
20-aza	3.795
20-urr	5.366
20-ira	6.786
20-abu	975
20-uzt	1.141
20-eka	146
20-mai	0

Zein da goizeko lehen orduko Iruña-Madril hegaldia berritzeko gutxi gorabeherako data?

Iberiak adierazi duenez, COVID-19aren krisia dela-eta, astero berrikusten du bere programazioa, hura egokitzeko bidaiarien bilakaerari eta etorkizuneko zenbatespenari, zeina oso baldintzatuta baitago mugikortasunaren murrizketen aldaketengatik. Eskaria suspertzen bada, Iberiak badu ahalmen operatiboa hegaldi gehiago jartzeko, Iruñetik joan eta etorriko bidaia egin nahi duen bidaiariari hobe egokituko litzaizkiokeenak. Edonola ere, gaur arte ez du helarazi ordutegiak aldatzeko inolako aurreikuspenik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 31n

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko konseilaria: Mikel Irujo Amezaga

Galdera, Oronozko eta Endarlatsako zentralak kultur intereseko ondasun deklaratzeko jarduketei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Oronozko eta Endarlatsako zentralak kultur intereseko ondasun deklaratzeko jarduketei buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballerena andreak idatzizko galdera egin du (10-21/PES-0096), jakin nahi baitu zein izan diren, orain arte, Nafarroako Gobernuaren jarduketa zehatzak, Oronozko eta Endarlatsako zentralak kultur intereseko ondasun deklaratzeko eskatzen zuen mozioa betetze aldera, eta zein abiarazi gogo dituenak eta noizko?. Hona hemen Kultura eta Kiroleko kontseilariak horri buruz jakinarazi beharrekoa:

Departamentu honetako Ondare Historikoaren Zerbitzua hainbat alderdi ari da baloratzen eta kontuan hartzen gai horri buruz;

Lehenbizi, Nafarroa lanean ari da Ondare Industrialaren Plan Nazionaleko lantaldeetan; planak irizpide objektibo eta jasangarriak ezarriko ditu Bidasoako bide berdean diren zentral horiek babesteko eta irizpide horiek osatu eta berrikustearen zain gaude.

Bigarren, zentral horiek izan litezke baliabide turistikoak ustiatzeko zentroak. Halakoan, eraikinean zenbait egokitzapen egin beharko litzateke, ezinbestez.

Hirugarren, gogoratu behar da kultur intereseko ondasun deklaratutako ondasunen mantentze-lanak beraien titularren ardura direla, Nafarroako

Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Legearen 27.1.a) artikuluari jarraikiz.

Azkenik, adieraztea babesteko beste aukera batzuk ere ari garela aztertzen, esate baterako, "Garrantzi lokaleko ondasun" deklaratzeko, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Legearen 22. artikuluan xedatuari jarraikiz, elementu malguago gisa egokitze-lanei ekiterakoan.

Ondare Historikoaren Zerbitzuak sentiberatasun berezia du Nafarroako ondare industrialaren balioan jartzeari begira. Ildo horretan, 2019an La fragilidad de un legado. Patrimonio industrial en Navarra liburua argitaratu zen, eta 2020ko amaieran monograia bat, Centrales Hidroeléctricas en Navarra (1898-2018) izenburukoa, biak Vianako Printzea Erakundea – Kultura Zuzendaritza Nagusiak sustatuak eta finantzatuak.

Bigarren lanak instalazioen bilakaeraren azterketa orokor bat egiten du eta Nafarroan izan diren 304 zentralen katalogo bat dakar. Informazio hori ezinbestekoa da bakoitzaren datu oinarritzakoak ezagutzeko eta abiapuntu gisa haietako batzuen azterlan sakonago eta zehatzago bat egiterakoan.

Endarlatsako eta Oronozko zentralen kasuan, ezingo lukete berreskuratu jatorriz zuten elektrizitate-fabrikaren eginkizuna. Horrek baldintzatzen du instalazioa "multzo industrial" gisa ulertzea, elementu batzuk ezin izanen direlako berreskuratu. Makinak, bi kasuetan, 1900. urtearen ondokoa direnez, ez dira sartzen Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Legearen 702. artikuluan xedatutakoan, eta testigantzako elementu soil gisa geratuko lirateke.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

Galdera, zentral hidroelektrikoak kultur intereseko ondasun deklaratzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, zentral hidroelektrikoak kultur intereseko ondasun deklaratzeari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak idatzizko galdera egin du (10-21/PES-0097), jakin nahi baitu Nafarroako Gobernuak zentral hidroelektriko gehiago kultur intereseko ondasun deklaratzeko asmorik edukiz gero, zein diren horiek?. Hona hemen Kultura eta Kiroleko kontseilariak horri buruz jakinarazi beharrekoa:

Nafarroa Ondare Industrialaren Plan Nazional lantaldeetan dago; planak irizpideak berrikusten ditu, singularitasunari eta balio arkitektoniko, teknologiko edo testigantzakoari buruz, ahaztu gabe esku-hartzearen jasangarritasuna, errentagarritasuna eta bideragarritasuna baloratzea. Instalazioak ulertu behar dira multzo teknologiko baten moduan, non sartzan diren presa, sarrerako zein irteerako ubidea, hesiak, makinatarako etxea

eta makineria. Horrek guztiak mantentze-lanetan ahalegina eskatzen du, askotan iristeko oso zailak diren lekuetan, eta aztertu eta baloratu behar da; izan ere, ondasunen mantentze-lanak beraien titularen ardura dira, Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Legearen 27.1.a) artikuluari jarraikiz.

Ondare Historikoaren Zerbitzuak sentiberatasun berezia du Nafarroako ondare industrialaren balioan jartzeari begira. Ildo horretan, 2019an La fragilidad de un legado. Patrimonio industrial en Navarra liburua argitaratu zen, eta 2020ko amaieran monografia bat, Centrales Hidroeléctricas en Navarra (1898-2018) izenburukoa, biak Vianako Printzea Erakundea – Kultura Zuzendaritza Nagusiak sustatuak eta finantzatuak.

Bigarren lanak instalazioen bilakaeraren azterketa orokor bat egiten du eta Nafarroan izan diren 304 zentralen katalogo bat dakar. Informazio hori ezinbestekoa da abiapuntu gisa haietako batzuen azterlan sakonago eta zehatzago bat egiterakoan. Guztiak ez dira kalitate berekoak, eta ez dute kontserbazio egoera bera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Kultura eta Kiroleko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

Galdera, “Tortura eta tratu txarrak Nafarroako Foru Komunitatean 1960-1978 bitartean” txostenetik Atarés koronelaren aipamena kentzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Tortura eta tratu txarrak Nafarroako Foru Komunitatean 1960-1978 bitartean” txostenetik Atarés koronelaren aipamena kentzeari buruzkoa. Galdera 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak 10-21/PES-00099 galdera egin du, idatziz erantzun

dakion. Hauxe da horri buruz Herritarrekiko Harremanetako kontseilariak ematen duen informazioa:

Herritarrekiko Harremanetako Departamentuko Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak, bere webguneko 2021eko otsailaren 26ko datarekin, kendu egin zuen idatzizko galderan aipatzen den txostena.

Halaber, Zuzendaritza Nagusia harremanetan jarri da txostena prestatu zuen ikerketa-taldearekin, aipatutako informazioa egiaztatzeari ekin diezaion.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2021eko martxoaren 29an

Herritarrekiko harremanetako kontseilaria: Ana Olló Hualde

